

HITZARMENA

Ultzama aldeko Udalek eta Ametza Kultur Elkartek tokian tokiko hedabideak, Esan-Erran eta Pulunpe kudeatzeko hitzarmen hau sinatu dute, kontuan harturik honako:

AURREKARIAK

1. Ametza Kultur Elkartek, Basaburuko Udalarekin sinaturiko hitzarmenaren bidez, Esan-Erran irratiko esatari zerbitzua bere gain hartu zuen, 1998. urtean.
2. Pulunpe aldizkaria 1993. urtean sortu zen, Euskara Mankomunitatearen ekimenez, eta Ametza Kultur Elkartea sortu zenetik elkarte hau arduratu da aldizkaria egin, kaleratu eta kudeatzeaz.
3. Eskualdeko udalen eta Ametza Kultur Elkartearen artean Batzorde Misto osatzeko hitzarmena 1997ko irailean sinatu zen. Esan-Erran irratia kudeaketa, programazioa eta edukia zehaztea eta horren finantzazioa ziurtatzea ziren Batzorde Misto horren egiteko nagusiak.
4. Urte hauetan Batzorde Mistoaren bileretan honako udal hauek hartu dute parte: Imotz, Basaburua, Ultzama, Odieta, Atetz, Anue eta Lantz.

OINARRIAK

Lehena: Hitzarmen hau indarrean egonen da Esan-Erran irratia eta Pulunpe aldizkaria Ametza Kultur Elkartek kudeatzen dituen edo beste Hitzarmen bat adosten den bitartean.

Bigarrena: Hitzarmen honen helburua da bailara hauetan euskararen normalizazioa laguntzea, tokian tokiko hedabideen bidez, euskararen erabilera bermatuz edo ziurtatuz. Horretarako, Euskara Mankomunitatearen irizpideak eta aholkuak kontuan hartuko dira.

Hirugarrena: Batzorde Misto parekidea izanen da, hau da, udalek kide bana izendatuko dute, eta Ametza Kultur Elkartek kide kopuru berbera izanen du. Beraz, Imotz, Basaburua, Ultzama, Odieta, Atetz, Anue eta Lanzko udalek kide bana izendatuko dute, eta Ametza Kultur Elkartek beste zazpi kide izendatuko ditu.

Basaburuko udaleko ordezkaria izanen da batzordeburua, eta kalitatezko botoa izanen du; idazkaria, berriz, Ametza Kultur Elkarteko ordezkari bat.

Laugarrena: Batzorde honen zereginak izanen dira, besteak beste, bi proiektuen urteko programazioa aztertzea, aurrekontuak onartzea, eta haien inguruan kezka, arazo edo proposamen berriren bat sortzen denean horiei irtenbidea ematea.

Bosgarrena: Batzorde Misto gutxienez seihilekoan behin bilduko da, edo eta bi alde horietako batek hala eskatzen duenean.

Seigarrena: Ametza Kultur Elkarreak Batzorde Mistoari aurkeztuko dizkio urtero komunikabide bakoitzaren programazioa dagozkion aurrekontuekin batera; hala ere, behin urteko kontuak itxiz gero, horren berri emanen dio horretarako deitutako bileran.

Zazpigarrena: Batzorde Mistoak onartutako kontuetan defizita egonez gero, Udalek bere gain hartuko dute defizit hori bakoitzaren biztanle kopuruaren ariora banatuz. Horretarako Udalek defizitaren erdia ordainduko dute aurrekontua onartutakoan, eta beste erdia urteko kontuak Batzorde Mistoak onartzen dituenean.

Zortzigarrena: Udal batek dagokion zatia ez ordaintzea erabakitzen badu, Ametzak hartuko du bere gain, eta, beraz, beste udalei ez die gastu erantsirik ekarriko.

Bederatzigarren: Bi aldeek erabakiko dute hitzarmena bertan behera uztea, horretarako bidezko arrazoiak daudenean.

Jauntsarats, bi mila eta zortziko(a)ren (e)an